

Web 2.0 ikastaroa, sarean

2006/04/03

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Web 2.0 ikastaro bat ematen hasi da Irakasle Ikasketak egiten ari diren 15 ikaslerentzat. Ikastaro horretan erabiltzen ari den materiala sarean argitaratzen ari da HUHEZI, **Gizakom** izeneko blogean, nahi duenak eskura izan dezan.

Orain arte **lau artikul**u argitaratu dira Web 2.0 ikastaroari lotuta:

1. Web 2.0 ikastaroa
2. Writely eta Web 2.0 ikastaroa.
3. Web 2.0 lehen eguna.
4. Sarelariak posta zerrenda.

Ikastaroak jakin min handia piztu du Euskal Herriko internauten artean, batez ere **Klik bikoitza eta Sustatu blog**ek argitaratu ondoren berorren berri.

Web 2.0

Web 2.0 deitzen zaio aplikazio multzo bati, zeinen bidez erabiltzaileak askatasuna baitu sarean bertan lanak sortu, kudeatu eta beste batzuekin partekatzeko. Halaber, izen horrekin izendatu nahi izaten da sarearen fase dinamikoa eta sortzailea.

Zehazki, programa hauek ikasiko dituzte ikasleek **Web 2.0 ikastaroan**: blog bat eta posta zerrenda bat egiten, CalendarHub, del.icio.us, Bloglines, Flickr, Tagzania eta Writely. Horrekin batera, ikasleek ikasiko dute netiketa, hau da, nola idatzi Interneten.

